



orbanak

Pello
Lizarralde

n a r r a t i o a

ORBANAK

Narratiba, 75

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honen argitalpenak Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioioko laguntza izan du, Liburutegi Publikoetan utzi ahal izateko, Jabetza Intelektualaren Legearen 37.2 artikuluan aginduta dagoenaren arabera.



1. argitalpena: 2012ko martxoan

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko argazkia:

José Ignacio Agorreta

© Pello Lizarralde

© EREIN. Donostia 2012

ISBN: 978-84-9746-750-6

L. G.: SS-556/2012

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Pello Lizarralde

ORBANAK



Pablo Antoñanaren oroimenez.

Pagadian zirimola batek harrotu zuen bide-ukondoko orbela. Han aski argiak ziren bidezidorraren mugak, urte-tan zapal dutako hostoak lur beltzari atxikiagoak baitzeuden eta ilunago eta distiratsuago ageri ziren tarteka. Astinaldi bakarraren ondotik haize leun bat ezarri zen. Enbor zuzenen artetik heldu zen, inon nabarmendu gabe, ez lurzoruan, ez adarretako kimu bakanetan, ezta han-hemenka hazitako sastrakan ere. Soinu hutsa zen haize hura, hats beltz bat basoko labirintoan.

Beherago, hurrengo bihurguneko ezponda gainean zegoen eserita gizona, belaunak tolestuta, besoak belaunburuetan bermatuta, eskuak erorita eta zabalik. Begiak goiko bihurgunetik kendu gabe, zirimolak bidezidor erdira bultzatu berria zuen hosto idor baten mugimendua jarraitu zuen gizonak. Handik ikusita, hosto hari bidea jauzi ttikiak eginez zeharkatzen ari zen txori arre baten tankera hartzen ahal zitzaion.

Gizonak ez zuen zirkinik egin orbelaren zurrumuruu bukatu eta hostoa geldirik ikusi arte. Gero begiak kliskatu zituen eta ezkerreko esku gaina alde bereko belarripera eramane eta lepoan zuen bost bat zentimetroko orbain distiratsua igurtzi zuen.

Sudur hurrupada txikiak eginda, begi ertzetako bustia idortu zuen jaka grisaren mahukan. Bizkarra ezpondan etzateko gogo biziari eutsi zion eta eskuak atzean jarrita burua goratu zuen basoaren sabai aldera. Adarren eta hosto hilen artetik zetozkion ezin kontatuzko ñirñirrek jo zioten begietan. Atera zuen eguerdiak ez zuela urrun behar.

Zutitu gabe jaitsi zen ezpondatik, bizkarra atzerantz okertu eta orbelaren lodia baliatuz bidezidorreraino lerratzeke. Berriz zutitzean, jaisteak eragin berria zuen karraskaren ondotik, adi geratu zen, besoak soinetik pixka bat bereizita, ezpainak erdi irekita, zentzumenak basoaren hatsean murgilduta. Mehatxuak baztertu ahal izateko aski iruditu zitzaion segundo batzuk itzarotea. Gero zalantzarik gabe egin zuen aurrera, sigi-saga apenas jaisten zen bidezidorrean barrena. Bizi-bizi jarraitu ahal izan zuen, lurrera begiratu gabe, non ez zen harri edo ur xirripa estaliak saihesteko.

Bidearen eskuin aldean pendiza nabarmentzen has-tean, gizonak han behean urritzen zihoan argia eta bakan agertzen ziren haritzen enbor beltz lehertuak behatu zituen. Luze gabe, ordea, berriz zabaldu zen basoa, eta ibilia gelditu gabe, bidetik franko hurbil bi txondorrek utzitako zirkulu beltzez ohartu zen gizona. Are biziago jo zuen

bidea lokazten hasi zen gunera heldu arte; orduan, zenbait jauzi egin behar izan zituen ertzetik ertzera edo harritik ertzera, eta lehorragera eta garbiagera irten ondoren pendizean behera jaitsi zen dozena bat metro, eta hala bilatu zuen ura hosto artetik ateratzen zen lekua. Han, ordura arte zabal-zabalik eraman zituen eskuak garbitzeari ekin zion lehen-lehenik. Mantso eta kontu handiz igurtzi zituen ahurrak eta hatz artekoak; hatz erakusleko azazkalla baliatu zuen gainerakoen azazkaletan sartua zen lur beltza kentzeko. Horiak txukundutakoan besoak luzatu eta eskuak aztertu zituen. Hasperen labur bat atera zitzaion eta belauniko jarri zen aurpegia bustitzeko. Istantean zutitu eta, besterik ezean, besoak astinduz lehortu zituen.

Abiatu orduko orbelaren lodiak orkatilaraino sartuta ibili beharra ekarri zion, soinua zela-eta hasieran urrats bakoitza neurtuz, laster, ordea, aurrean zuen malda gaineko adarren artean zeru puska zabalagoak begiztatutakoan, lehengora eraman zuen abiadura.

Malda atera baino lehentxoago heldu zitzaion amildegiko haizearen zaflada.

Atsedetik hartu gabe, aldaroka bilatu zuen amildegia ertza. Sastrakak zuzen joatea eragozten ziola-eta pare bat minutu egin zituen zelai hartan aurrera. Amildegira hurbildu ahala indartsuagoa zen haizea eta gizonak pausoa geldoago botatzea erabaki zuen. Ahal beste inguratu zen ertzera, arnasa bularra betean hartzen zuela.

Harana aztertu aurretik mendiak ezker-eskuin eskaintzen zion karearrizko talai amaigabetik begietsi zituen

haitz irtenenak eta mendateko bidera zeramaten harri arteko sarrerak, paretetako herdoil koloreko ur arrastoak eta higaduraren eraginez mendi oinean bildutako harri xeheagoa.

Nekeza zitzaion oso begiratuia oinpean zuen ordoki izugarri zabaleko gune jakin batean pausatzea. Iparra eta hegoa nontsu zeuden taxutu ondoren herri edo auzo itxurako guneak zenbatu zituen. Dozena erdi bat menditik ez oso aparte. Urrun, lausoan, beste asko suma zitzakeen.

Lerro zuzenek mugatzen zituzten soro berde ikaragarriei erreparatu zien gero, eta zegoen tokitik zentzu handirik ez izanagatik, han ereinak zituztenei antzematen saiatu zen. Menditik urrundu ahala kolore horiak eta arreak lur zati handiagoak hartzen zituzten. Haien artean ugari erreka bazterretako zain berdeak eta alderik alde ibai baten ibar luze eta kizkurra. Errepideak meharrak eta zuzenak ziren muinoetara bitartean.

Arreta gutxiago jarri zuen urruneko bazter haietan eta ibiliari ekitearekin batera egin zizkien azken begiratuak. Goi haietako sastrakak amildegi ertzetik aldentzera behartu zuen, eta bidezidor garbi baten ezean, aziendek utzitako arrasto ugariei jarraitu zien. Pixkanaka ezpeldi garai bateko labirintoak inguratu eta estali zuen, eta handik gutxira lur gorriko bidezidor bakar batean barrena ibili ahal izan zen. Ezpeldi usaintsu haren babesean zihoala nabarmendu zitzaizkion lehen neke zantzuak. Zuhaixkak pixkanaka soiltzean haize bolada bortitzagoak itzuli ziren eta gizona astiro hurreratu zen ezpeldiaren mugaraino. Orduan,

belaun bat lurrean bermatuta, zelatan geratu zen amildegitik ehunen bat metrora zegoen baselizara begira.

Laino arin batek lanbrotzen zuen tenpluaren atzeko aldea, baina gizonari minutu bat aski izan zitzaion inguruan inor ez zela frogatzeko. Hala ere, beste tarte labur bat eman zuen makurtuta, adi, begiak itxita, ezpelaren hosto ttikiek aurpegia ukitzen ziotela. Gero burua batera eta bestera jiratzen zuela zeharkatu zuen baseliza aurreko zelaia, eta atariko jesarlekuan eseri zen. Bizkarra harriaren kontra jartzeak hotzikarak eragin zizkion. Tanta ñimiño batzuek ziprztindu zizkioten kopeta eta betazalak. Amildegi er-tzerainoko bidean haizeak inarrostean zituen belar luzeak begietsi zituen, eta gero zerumuga hurbil hura eta harago zeru nahasiaren bestaldeko huts neurtezina.

Hotzak behartuta baselizari atxikitako estalpean sartu zen. Barrenean nagusi ziren egurraren eta urtetako kearen usainak. Beheko suaren gaineko apalean norbaitek misto kaxa bat eta kandela mutur batzuk zituen utziak. Zoko batean bi pota herdoiltzen hasiak. Gizonak alferrik bilatu zuen beste ezer. Haatik, beheko suaren parean makurtu zen ziri batekin errauts hotzak aztertzeke. Irten ez irten egon zen pixka batean, baina egur pilaren gainean esertzea deliberatu zuen azkenik. Harri arte gaizki zarpe-atuetatik haize ufadak sartu zitzaizkion, kilikari, ileraino. Belaunak besoekin bildu eta burua haien gainean paratu zuen pixka batean.

Ez zuen asko iraun jarrera hartan. Kanpora irten eta baselizaren atzeko aldetik behera jaitsi zen harkaitz aldera

zeraman bidezidorraren bila. Bidean aurrera, ote zuriaren arantzek orkatilak eta zango aztalak ziztatzen zizkioten. Ziztada haiek gogorarazi zioten zein erraz esnatzen den odola.

Satitsua pagadiko soilgunearen ertzean gelditu zen, burua eguzki hotzaren argitan, gainerakoa gerizpean. Mutur luzea azkar mugitu zuen batera eta bestera. Laster soilgunea zeharkatzen hasi zen, tarteka orbelak estaltzen zuela. Intsekturen bat irensteko proportzioa zuenean geldialdi luzeagoak egiten zituen, baina orduan ere usnatzeari utzi gabe, eromenez.

Eguzkiak hartzen zuen eremutik ateratzear zegoela ukitu zuen botaren gomazko zola iltzeduna. Lipar batez duda egin zuen arren, gora jo zuen berriz, eta orkatilara iritsitakoan, galtza-barren bilduak agerian uzten zuen zangoaren zati biluzira heldu zen. Alde batera utzi zuen galtza-barrenean hasten zen tunelaren ilunpea eta zangoan gora joan zen larruzko zamarraren pareraino. Soin-enborrak eta beso luzatuak eratzen zuten angeluaren erpinera igo beharrean nahiago izan zuen eskuraino iritsi. Sati-tsua hanka biziak esku urratuz betea zapaldu zuten. Lur beltzak ia erabat estaltzen zuen urrezko eraztunen gaineratik pasatu ondoren hatz okertuetara jaitsi zen.

Hatzek aztarrika ari denaren keinua zuten oraindik, izozturik. Satitsuari aski izan zitzaion beste jauzi bat atzera lurra iristeko. Gero orbelak irentsi zuen.

Nazariok maiz izaten zituen antzeko ateraldiak. Gure herrian inoiz harekin egokitua zen edozein jakinaren gainean zegoen noiznahi botatzen zituela, eta, hala ere, erraztasun ikaragarria zuen asko eta asko ustekabeen harrapatzeko. Haren ondoan suertatzen zirenak izoztuta bezala geratzen ziren, zer esan ez zekitela, eta orduan elkarri begira egoten ziren pixka batean, eta deus esan gabe nor berera erretiratzen zen, nahasita, entzun berria zuena ulertu gabe eta desoseguak jota. Horixe baitzen makurrena, ezer ez ulertu arren, inor ez zela ausartzen esatera hori ganbaratik zegok eta hobe duk batere kasurik ez egitea. Satelitea beharbada bai, xelebrea ez. Eta izena, bakarra: pontekoa. Nazario Nazario zen beti. Ezerk ez zion aldatua izena, ez jaioteak, ez ohiturek, ez maniek edo ezindura batek.

Dena dela, omenka ari naiz. Niri, bakarrik edo beste batzuen ondoan nengoela, ez zait egokitu Nazarioen ahotik gogoan hartzea merezi zuen ezer entzutea. Dena dela, ez dut kontatu didatenaz ez fidatzeko arrazoirik, oso zaila baita hain gauza aldrebesak asmatzea eta denak elkar hartuta egotea.

Eta goiz hartan ere bota zuen bota beharrekoa. Han zeuden bi lagunek esanda dakit nik, hamarrak aldera, ordurako hotsa baitzebilen, bosten bat lagun zirela elkartuak Bihurraranera doan bidearen sarreran. Beste batzuetan bezala, ohartu zirenerako, han bildu zitzaien Nazario. Gizon haiek handik eta hemendik jaso ahal izan zituzten zurrumurru apurren berri elkarri ematen ari zirela eten omen zien jarduna: “Ba nengoen, ba, ni!” Eta han elkartutakoak bat-batean isilduak zirela ikusita: “Eguna argitu orduko ikusi ditut behorrek menditik lau hazkan jaisten eta... izoztuak zituzten zurdak...”

Azkeneko hitzak botatakoan ezpainak okertu eta burua batera eta bestera mugitu ondoren mendi aldera begira jarri omen zen pixka batean, kezkatuta bezala. Berehala inori begiratu gabe urrundu zenean, gainerakoei ere, nonbait, elkarren ondoan egoteko gogoia joan zitzaien eta isil-isilik sakabanatu ziren.

Osineko ur loaren berde ilunak eta haren gainean pausatutako hosto ttikien ia erabateko gelditasunak argiro erakusten zuten errekek leku hartan zuen sakona. Han, ekarri ugaria zen egunetan ere, murmur goxoa baino ez. Burrunba aditzeko gorago joan behar zen, haitz aldera.

Osinetik behera ere motel zihoan ura, nonahi baretzen zela, beti mehe eta argi.

Ezpondako harria zuen errekek eskuineko bazterren muga. Goroldioak eta huntzak, ordea, ia erabat estaltzen zuten alde hura, eta haien gainetik iratzeak eta belarrak ur tantez ziprztinduta eta makur-makur eginda, baina erreka ukitu gabe.

Larruzko bota higatu batek ertzeko harri xehea zapaltzarekin uhertu zen bazterra. Orduan oinetakoaren jabeak keinua zuzendu eta oina atzeratu zuen. Jarraian bi esku ahur jaitsi ziren uretaraino, elkartuta, ahalik eta simetrikoen gopor itxura ematearren. Eskuek hiru aldiz errepikatu zuten mugimendua, eta hirutan tanta apur batzuk itzuli ziren errekarara. Azkenekoan ondotik listukada bat iritsi zen. Ur joanak mantso eraman zuen ttu zuria isurbideko jauzi txikiraino.

Hotzak atakatzen zuela sentitzean ezpel arteko gordelekuan zegoen gizon orbainduna, haitzetik askatutako harrien gainean etzanda. Agontzeak lagunduko ziolakoan, besoak gurutzatuz soina besarkatu zuen. Hodeiarate izartua behatzeko altxatu zuen burua, eta handik gutxira zutitu egin zen adarrak baztertzeke.

Han behean zeukan herriari erreparatu zion, eta, batez ere, berriki piztuak ziren argiguneei. Hamabi kontatu zituen, lau karriketari, gainerakoak etxe atarietan.

Gau beltzak bidea hartu ahala gizonak gehiago karaskatzen zituen hortzak. Begiak lurrera egin eta eseri egin zen ilun beltzera ohitu eta inguruko itzalak ezagutu zitza-keela iruditu zitzaion arte. Orduan pendiza jaisteari ekin zion, haztamuka, pausoak ongi neurtuz harriak ez irristarazteko.

Azken jauzia egin eta bidean sartu baino lehen, bi norabideak aztertu zituen. Zubi aldera zeraman hartatik heldu zitzaion argiantza baliatuz ibarreko bidezidorreraino jaistea deliberatu zuen. Oso mantso egin zuen aurrera, erreka bihurgune zabalean barrena. Bidea ixten zuten belar luzeek eta landareek hanketan jotzen zioten. Gora- go zituen etxeen silueta ilunak, eskuin aldeko sakanaren hegian; beste aldean eta beherago, herriko karrikek argi dirdai motela proiektatzen zuten erreka eta baratzeen gainean. Ilunpe hartan pausoa non bota zezakeen jakiteko erreka uraren joana eta baratzeetan ereindako apurren itzalei erreparatu zien. Tipula usainaren bafadak iristen zitzaizkion tarteka. Kasu handiagoa eman behar izan zuen makalek herria erabat ostentzean.

Zuhaitz ilaratik atera orduko, itxura batean herrira eramanez zezakeen bide bat aurkitu eta gero, urruntzea erabaki zuen. Hurrengoan nahikoa aparte zegoela iruditu zitzaion eta errepideraino igo zen. Kontrako norabidea hartu zuen herrira inguratzeko; hasieran korrika txikian eta

erdi-erditik argiguneei begira, luze gabe, ordea, errepidean nonahi agertzen ziren zuloetan estropezu egin ondoren, tentuz neurtu zituen urratsak.

Ia begien aurrean izan arte ez zuen metalezko kartela ikusi. Haren parean segundo batzuk baino eman ez bazituen ere, ohartu zen geziek eta uztarriak bazituztela oraindik pintura beltzaren eta gorriaren aztarnak. Handik metro gutxira, herriko lehenengo etxearen alboko fatxadan, herriaren izena eta diputazioaren ikurra, zeramikazko baldosa zuriz eta urdinez osatuak.

Eliza alderaino sartzan zen karrika behatu ahal izateko, gizonak argirik gabeko etxarte batean bilatu zuen babes. Karrikaren burukoa plaza begitandu zitzaion, eta eremu hartatik lehenbailehen aldentzea komeni zitzaiola eta bakartuta zeuden bi etxetako bidea hartu zuen. Zaunka egin zuen zakur batek, labur. Beste batek uluka erantzun zion aurrekoari, gogorik gabe. Gizona, bi sororen harresiak alboetan, bide kizkurrean barrena heldu zen lehenengo etxeraino. Sabaiko atepeko argi lerroaz ohartu bezain laster, zuzenean alderatu zen saihetseko hormaraino. Sabaira igotzeko arrapala azpian gelditu zen, adi. Ate batek kirrinka egin zuen. Beste zerbaiten zain egon zen, bizkarra hormaren kontra, burua gorantz arrapala azpira egina. Nola ez zekiela garbi iritsi zitzaizkion ukuiluko hats epela, arto alearen eta belar onduaren gozoa, eta arinago sagarrarena. Isiltasuna minagoa egin zitzaion begiak bildu zituenean. Erreka zulotik soinu zehaztezinak goratu ziren.

Arrapalapetik bidera egin zuen gizonak, eskuak apur bat aurreratuta, ilun beltz dardartia urratu nahi balu bezala. Otoitz baten marmar laburra itzuli zion mendiak.

Hurrengo etxeko soro zabalaren buruan harresira hurbildu zen. Etxe atzeko baratzean orban argi bat haute-man zuen. Besoak harresian eta kokotsa eskugainetan, orbanari antz eman nahian egon zen pixka batean. Baratze aldera etxeko argirik kanporatzen ez zela frogatu bezain laster harresi gainetik jauzi egin zuen.

Hesiko harri irtenak eskuarekin ukitzen zituela hurreratu zen baratzerara. Orban zuria lurretik metro erdi batera zintzilikatua ikustean bereizi ahal izan zituen esekitokia, bi burdin hariak eta sei zutoinak. Atorra zuriraino jo zuen zuzenean eta bi gantxoak kendu zizkion. Oihala bustia baino hotza iruditu zitzaion. Beste lau jantziren itzalak kontatu zituen. Galtza lodi batzuk hautatu, atorrarekin batera bil-bil egin eta haiek besapean bidera egin zuen.

Etxe parera iritsi aurretik, bidezidor batek lagundu zion erreka zulora jaisten. Ibar aldean karraska egin zuen adar batek. Haitz oinetik harri askatuen oihartzuna hedatu zen.

Bazkal ordua zen agindua jaso nuenerako. Ia ordubete emana zuten kartzela zaharraren ondoko biltegi hutsean

itxita han eginbeharren bat zuten guztiak edo gehienak. Ni, zer gerta ere, udaletxe atarian nengoen.

Kontu handiz ibili ziren atentzioa ez emateko, baina jakin bagenekien laster gabe han ibiliko zela jendea ikusmiran eta galdezka. Izan ere, ez baita hain erraza gorpua bat inor ohartu gabe garraiatzea.

Jose txo mendizainari esker berehala jakin nituen xehetasun batzuk; eta arrunt fidagarriak ziren, Jose txok berak topatu baitzuen gorpua pagadian.

Ez nuen estutu nahi izan, apenas egin nion galderarik. Haren aurpegia ikusi besterik ez zegoen ohartzeko ez zuela berriketarako gogo handirik. Aztoratuta sartu zen udaletxeko arkupean, gero zigarro bat eman zioten eta zutabe baten kontra jarri zen. Handik gutxira abailduta zegoen. “Zer edo zer behar al duk?” galdetu nion. Hats kolpe labur bat bota zuen. Ezetz. “Luzeak dituk gauza hauek, alajainkoa...” erantzun zidan. Eta aski izan zen gorpua aurkitu zuen orduaz galdetzea. Eten laburrak eginez, baina argi eta soil eman zidan goiz hartako gorabeheren berri.

Nonbait, hildakoa nor zen ikusita Jose txok ziztuan jo zuen Maxeneko bordara. Hango seme gazteena bidali zuen herrira abisu ematera eta Jose txo eta bordakoak goian geratu ziren epailearen eta guardien zain. Ez omen ziren berehala igo. Haraino oinez joan behar zen, ez zuen mezezi bestela saiatzea. Agintariek egin beharrekoak eginda, gorpua jaisteko lanak Jose txori eta ondoko bi bordetan bildu zituzten gizoni utzi zizkieten. Neketan moldatu ziren gorpua nola eramane behar zuten asmatzeko orduan.

Egur batzuk gurutzatuz lortu zuten azkenean andei tankerak ematea eta lau gizonen artean, ederki kostata, ekarri zuten beheraino. Alkatea, guardiak eta gainerakoak harrobiko bidearen hasieran zituzten zain, eta ordurako haiek mintzatuak ziren zer egin behar zen eta nondik sartuko ziren udaletxeraino. Ez zela komeni herriaren erdi-erditik pasatzea eta andabide berria bilatu zutela esan liteke. Horregatik hartu zuten atzeko bidea, ibai bazterrekoa, eta fabrika egiten ari ziren ibarrean barrena jarraitu zuten udaletxe atzeraino.

Manta zahar batekin estalia zekarten eta non sartu behar zuten erabaki arte ni ate nagusiaz arduratu nintzen. Haiek biltegian itxi baino lehen entzun nuen alkateak bigarrenari esaten ziola: “ingeniariari ere norbaitek esan beharko zio.” Hori kanpora atera eta Josetxorekin elkartu baino lehentxoago.

Josetxok zigarroa bukatutakoan plaza aldera begira jarri nintzen, eta konturatu orduko hura alde egina zen.

Sartu-irten batzuk egin nituen, baina ordubete emango nuen ia inorekin solastu gabe. Aldi horren buruan inguratu zitzaidan alkatea agindua ematera.

Agindua izan zela esatea askotxo esatea litzateke beharbada. Herri honetan niri ez dit inork agindu itxurako ezer ematen. Aspaldi ohartu nintzen mintzatzeko modu bat dela, esanen nuke probak egiten dituztela, erantzun bat edo jokatzeko bide bat behar dutela. “Hi gu baino hobeki moldatzen haiz eta hik joan beharko duk guardiekin” esan zidan alkateak, eta antzeko asko entzun dudanez, aski

ongi dakit zer esan nahi didaten horrelakoetan. Hark ez ninduen bidali nahi bazter hauek ongi ezagutzen ditudalako; hark esan nahi zidana zen hi ez haiz hemengoa, hi beste alde hartakoa haiz eta ez duk lotsagarri geratzeko beldurrik, erantzun behar bazaie ez duk beldurrik izanen eta eutsiko diok, ez haute erotuko edo nahi ez duan ezer egitera behartuko. Horixe zen eta istantean konprenitu nuen.

Oroitzen naiz mintzatu zitzaidan bitartean alkatea plazara begira zegoela eta nik ez nuela txintik atera. “Oihanbeltzeko lepoan egonen dituk hire zain” esanda ia burumakur alde egin zuen. Eta gure artean ez zen beste hitzen beharrik izan egun hartan.

Oin hotsak bidezidorrean entzuteaz batera behorrak baztertzen hasi ziren, poliki. Hotsak hurbilago sentitu ahala dardara ttikiak agertu ziren haien bizkar ihintzez bustietan. Ugari zegoen sastraka goi larre haietan, eta behorrek ezpela eta sasia saihestuz egin zuten aurrera, bazkatzeari utzi gabe.

Hotsak haien pareta jotzean lepoa altxatu eta bidaztia bertan zegoela ohartuta, trosta egin zuten labur, apur bat aldentzeko. Azken izualdian zaldiko bat ez beste guztiak bidearen alde berean gelditu ziren. Zaldikoak,

nahasirik, joan-etorri azkarrak egin zituen bidaztiak bizkarra eman arte. Orduan bidezidorra gurutzatu zuen besteengana bihurtzeko. Gero sastraka arteko soilguneetan hedatu ziren.

Basurdeek gorritua zuten hango lurra. Egunsentiko errainu okerrekin laster bigunduko zuten lokatz gogortua. Ordokitik ezkila hotsa igo zen.

Haitzen azpiko artadi sarriaren itzalek ia dorretxe bakar-tuaren atzeko aldea ukitzen zuten. Handik behera soro zabalak bailaran, makal batzuk ibarbasoan eta fruta-arbolak urriago, aldatuak baratzeen mugetan eta basak bide bazterretan.

Nekazari zaharra mantso irten zen dorretxetik, aitzurra eskuan eta igitaia gerrian. Larrain erdian geldirik burua bihurtu zuen eskuineko eremu berde zabala begiesteko. Aitzurrak dirdai hil bat egin zuen eguzkipean. Nekazariak larraineko harresiraino joan eta harri arteko belar gaizto batzuk erauzi zituen eskuekin. Burua goratu zuen, begiak haitzetaraino iristen zen artadian jartzeko.

Gizon orbaindunak ezkutatzeko keinua egin zuen. Nekazariaren jarrerak, haren buru geldiak eta begiradaren norabideak eragin zioten mugitzea.